

GOIAN ZERUA ETA BEHEAN LURRA

Mikel Zabalza

Aurkibidea

HASIERAK.....	6
LANTANG. EZ DAGO LEHEN ALDIAREN PAREKORIK.....	8
PATAGONIA. <i>MÁGICO ESTE</i>	19
GORABEHERAZ BETERIKO PEUTEREYKO INTEGRALA.....	23
PAKISTANERA BIDEAN. TRANGO, IZENIK GABEKO DORREA	28
TRAGEDIA PIERGIORGION.....	35
KANGCHENJUNGA. BRITANIARREN BIDEA.....	41
ODISEA DUNAGIRI MENDIAN.....	48
<i>LUDOPATIA</i> . CHANGUI TOWER	56
PIRINIOAK. MUNDUAN EZ DA HOBERIK	60
MAUD ERREGINAREN LURRALDEAN.....	77
EVEREST ETA K2. MENDI HANDIAK.....	82
MONT BLANCEKO <i>DIVINE PROVIDENCE</i>	88
K2 ETA ABRUZZOS EZPROIA	96
GASHERBRUM II TXINATIK.....	102
GASHERBRUM IV. MENDI DISTIRATSUA	108
BASQUE TEAM. ERRONKA HANDIAK.....	114
BROAD PEAK-EKO ZEHARKALDIA	123
ZEHARKALDI POLARRAK: GROENLANDIA ETA ANTARTIKA	129
NUPTSEKO HEGO HORMA.....	145
PAIJU PEAKEKO HEGO DORREA	152
CHAMLANGKO ERTZA.....	162
GASHERBRUM-EN ZEHARKALDIA	167
KYASHAR BAILARA. MENDI EDER ETA EZEZAGUNAK.....	172
ROLWALING BAILARA	178
PHURBI CHYACHU. DOTORE ETA ZORROTZA.....	189
EPILOGOA. MENDIA, IRUZUR ETA TRANPARIK GABE	195

HASIERAK

Iruñean jaio nintzen 1970. urtean, bost anaia-arrebak osatutako familia oso ugari baten altzoan. Gurasoek ez ninduten inoiz mendira eraman; bazuten nahikoa lan familia aurrera ateratzearekin. Oso txikia nintzela, 10 urte gorriekin, eta nire ekimenez, mendiko talde batean eman nuen izena, eta lehen kanpalekuetan eta txangoetan parte hartzen hasi nintzen.

Pentsatzen dut jaio nintzen hirian arnasten zen mendizale giroak eragina izan zuela nire mendirako joera hartan. Esku pilotan ere aritzen nintzen, eta aste-buruetan Iruñerriko mendietara joaten nintzen lagunekin. Batzuetan bizikletan mugitzen ginen, beste batzuetan trenean edo autobusean, eta, noizean behin, gurasoren batek eramaten gintuen autoan.

16 urterekin eskalatzen hasi nintzen, eta hor hasi zen aldatzen dena. Pilotan jokatzeari utzi nion, ordura arte hain gustukoa izan nuen kirolari, eta beste mundu honetan murgiltzen hasi nintzen. Mendia eta eskalatzea oso maiteak nituen, eta, beraz, argi izan nuen hasieratik biak uztartzen saiatuko nintzela. Ia oharkabean, neguko alpinismoa egiten ere hasi nintzen. Gavarnien egin nituen modalitate horretako nire lehen igoera serio samarrak. Gavarnien bertan beste piolet bat alokatu nuen, garai hartan piolet klasiko bakar bat eta uhalezko kranpoiak besterik ez baintuen, eta Unai Pérez Isasik eta biok, Tailloneko iparra eta Astazuetako Swan korridorea igo genituen.

Egun hartatik aurrera, sos batzuk biltzen nituen bakoitzean, material teknikoren bat erosten nuen, garai hartan ez baitzen erraza lortzeko. *Friend*-ak eta izotzezko

torlojuak ziren, zalantzarik gabe, gure gutiziarik preziatuenak.

Etxean nengoenean, kirol eskalada egiten nuen nire hiritik hurbileko eskolatan, batez ere Etxaurin. Ia egunero, korrika egitera ateratzen nintzen Gaztelugibeleko parkera, eta, ondoren, boulder egitera joaten nintzen Ziudadelako harresietara. Lehenbizi korrika egin, eta gero, eskalatu. Era horretara, inguratze bide gogor bat simulatzen nuen, gero eskalatu ahal izateko.



Unai Pérezekin, Alpeetara egin nuen lehenengo bidaian.



Etxaurin, anaiarekin batera, Pata Negra bidea ireki nuen.

Negua maite nuen bereziki: ipar eskia eta mendiko eskia egiten nituen, eta, ia oharkabean, izotzean eskalatzen hasi nintzen. Izotzean eskalatzea gehiago gusztatzen zitzaidan udan aritzea baino; neguan zinez ederra iruditzen zitzaidan mendia, ederragoa ezin.

Berehala hasi nintzen Pirinioetako hormetan aukera berriak esploratzen. Nire jakin-minak eta berezko izaera ausartak akuilatuta, ezezagunak erakarri egiten ninduen, abenturaren bila joateak sortzen duen indar pizgarri hori sumatzen nuen barnean, eta gero eta sarriago jotzen nuen leku ezezagun horietara, argazki soil bat eskuetan eta sena gidari nuela. Urteekin, behaketari eta eskarmentuari esker, zorrozten joan naiz sen hori, eta gaur egun zehaztasun handi samarrarekin aurreikusi dezaket zer baldintzatan egongo den, adibidez, mendebaldeko Pirinioetako horma bat neguan.

LANTANG

Ez dago lehen aldiaren parekorik

1992an amaitu nituen nekazaritza-ingeniaritza teknikoko ikasketak, eta uda hartan bertan suhiltzaileen basoetako peoi gisa egin nuen lan. Denbora eta dirua batzeko formula magikoa aurkitu nuen, baita adiskide perfektua ere, Fermin Izco. Urte hartan bertan, biok elkarrekin gure lehen bidaia egin genuen Nepalera, asmo lauso bat buruan: Langtang bailaran, Shisha Pangmaren hego-mendebaldean (Nepaleko Himalaia), ahal genuena eskalatzea. Langtangeko ingurune hori parke nazional izendatu zuten 1976an, eta kategoria horretako lehena bihurtu zen Himalaian. Katmanduren iparrean kokatuta dago lurralde babestu hori, Tibeteko mugatik oso gertu, eta 1.710 km²-ko azalera hartzen du.

Fermin aipatuta, esan behar dut sokalagun izan ditudan guztietatik ausartena eta adoretuena dela seguruenena. Beti jarrera baikorrenekin eta giza-legezko jokabidearekin, munduaren azken muturreraino joan zaitezke berarekin. Hori bai, komeni da beti haren ideiak eta planteamenduak ezbaian jartzea. Batzuetan jenio baten burubideak dira, eta beste batzuetan, burugabekeriak. Adibidez, alpinismoaren maximetako baten arabera, ezinbestekoa baino ez da eraman behar motxilan; bada, Ferminen azken muturreraino eramaten du arau hori, ezinbestekoaren ezinbestekoak zenbaitetan sortzen dituen larridurekin.


1992ko hartan, Langtangeko *trekkinga* egiten ibili ziren lagun batzuen argazkiek piztu zuten gure grina eta motibazioaren sua. Egiaz irudi erakargarriak ziren: mendi elurtu zinez ederrak eta zorrotzak ageri ziren haietan. Hala, Langtang Lirung mendiaren hego aurpegia esploratzeko asmoarekin abiatu ginen. Mendi hori 7.234 metro goratzen da, eta eskualde hartako gailur altuena da. Langtang Lirung hegoaldeko horma, berriz, inork eskalatu gabe egon da urte askotan. Lehen igoera espedizio japoniar batek egin zuen 1978an. Neguko lehen igoera, berriz, Mikołaj Czyżewski, Kazimierz Kiszka eta Adam Potoczek poloniarrek egin zuten. Ordura arteko igoera bakanak hego-ekialdeko eta hego-mendebaldeko

ertzetatik izan ziren. Mendiak, beraz, osagai guztiak zituen guretzat erronka interesgarria izateko.

Hainbat gorabehera izan genituen bidaian: bost egun egin behar izan genituen Katmandun, galdu-tako maleta bat berreskuratzeko; beherako latzak jasan genituen, eta horri gure diru baliabide mendeak gehituta, gorriak eta bi ikusi genituen. Izan ere, lekuri merkeenetan hartzen genuen ostatu ezinbestean, eta merkeen eskura genezakeen janaria jaten genuen. Hala, enpo egin genuen otorduro *dal-bhat-a* janez, arroz, dilistaz eta berduraz osatutako bertako janari ohikoa, eta labezomorroren bat edo beste izan genuen gelakide.

Gure espedizioan “pirata” estiloa aukeratu genuen: hau da, ez genuen ordaindu ez baimenik ez lotura lanak egingo zituen ofizialen soldatarik, eta, beraz, askatasun osoa genuen Langtangeko mendialdean eskalatzeko, non eta beste espediziorik ez zen inguruetan. Kanpoko zerbitzurik ere ez genuen hartu mendirako; ez sukaldaririk ez bertako gidaririk. Hiru zamaketari baino ez genituen kontratatu gure ekipamendua bailarako azken herriaren atarira eramateko; Kyanjin Gompa herrira (3.900 m), hain zuzen. Zamaketari bakoitzak 35 kilo bizkarreratu zituen, eta, besterik badirudi ere, pisu hori ez da inolako astakeria Nepalen. Guk, gure aldetik, bizkar gainean 25 kilo zamatuta egin genuen hurbiltze bidea.

Behin han, Langtang Lirung mendiaren hego isuria arriskutsuegia iruditu zitzaigun, etengabe erortzen baitziren *serac*-ak. Gainera, arratsaldero, bailaratik sortzen ziren lainoek erabat estaltzen zuten mendia, eta, bitxiaren bitxia, ez zen gauza bera gertatzen pixka bat iparrerrago zeuden mendietan. Ez genuen bitan pentsatu: trasteak hartu eta Gangchempo mendian (6.387 m) jarri genuen mira. Silueta perfektuko mendia zen, izotzezko ubidez estalia. Peruko Andeatako Alpamayo ospetsua ekarri zigun gogora.




Gangchempoko ipar aurpegia.

ODISEA DUNAGIRI MENDIAN

Xabi Gembe, Jon Beloki eta hirurok espedizio bat antolatu genuen Indiara 1998an, pirata estiloan, Changabang mendiaren ipar aurpegia eskalatzeko asmoarekin. Azken orduan, Fermin Izco batu zitzaigun planera.

Mendi horren iparra erronka zirraragarria izan zitekeela iruditu zitzaigun; izan ere, ipar aurpegi hartan biak konbinatzen ziren, altuera eta zailtasuna, abentura beteko eremuan. Indiako Himalaian dago Changabang (6.864 m), oso silueta deigarriko mendia da, letagin zorrotz baten modukoa. 1976an Peter Boardman eta Joe Tasker britainiarrek mendiaren mendebaldeko aurpegitik estilo alpinoan eginiko

Dunagiriko ipar isurialdea.



Ezkerretik hasita, neu, Xabi Guembe, Jon Beloki eta Fermin Izco.

igoera Himalaian egindako eskalada zailenatzat hartu izan zen luzaroan. Ipar aurpegia are ikusgarriagoa da; 1997an eskalatu zuten lehen aldiz Mick Fowler eta Steve Sustad ingelesek.

Ez genuena aurreikusi zen mendi horretan beste espediziorik egon zitekeenik. Kontua da estilo piratan joanez gero, “estatutuek” diotena aintzat hartuta, ez dela onargarria inorekin mendia partekatzea; izan ere, gu “ilegal” gindoazen mendira, baimenik ordaindu gabe, lotura lanak egingo zituen ofizialik gabe, sukaldaririk eta bestelakorik gabe. Zamaketari batzuen laguntza baino ez genuen aurreikusi materiala kanpaleku nagusira eramateko, eta han bakarrik geratzea zen asmoa. Baina espedizio errusiar-amerikar bat zegoen Changabangen, ipar aurpegian bertan bide zuzen bat zabaltzeko asmoarekin. Fermin saiatu zen haien ofiziala limurtzen, horma berean eskalatzen utz ziezaguten, baina alferrik izan zen.

Changabangen etsia hartuta, Joshimath herrira itzuli ginen B plan bat bilatzeko asmoarekin. Katmandun erositako liburu poloniar zahar batean, Dunagiri mendiaren (7.083 m) ipar aurpegiko marrazki polit bat ikusi genuen, eta mendi hura gertu samar geratzen zitzaigun. Ipar horma hartan, poloniarren liburuaren arabera, ez zegoen biderik zabalduta, eta, beraz, aukera ona iruditu zitzaigun. Nahikoa izan zen marrazki hura: mihise eder haren trazuetan hasi zen hegan gure irudimena, harkaitz eta elurrezko harresi ezinezkoak aurkitzeko ametsetan, haietan eskalada on bat saiatzeko.

Kanpaleku nagusira hurbiltzeko bidean ez ginen batere aspertu, ez horixe. Dhauliganga ibaia gurutzatzeko, inoiz ikusi dudun tirolina traukilena erabili ge-

EVEREST ETA K2

Mendi handiak

Lagunarteko espedizio bat antolatu genuen 2000. urteko udaberrian Everesteko ipar aurpegira. Iñaki Ochoa de Olza zen batez ere gurdia tiratzen ziona. Ordurako oso murgilduta zegoen zortzimilakoen proiektuan, eta haren garra berotu egin gintuen besteak proiektu honetara.

Taldean zeuden nire ohiko eskalada lagunetako bat, Antonio Aquerreta, eta harekin batera, Koldo Aldaz, Jose Maria Oñate, "Habi", eta bi gipuzkoar, Oscar Gogorza eta Txetxu Lete. Azken unean Habi ez zen etorri, emaztea gaixotu egin baitzen, eta hura zaintzen geratu zen bera.



Everesteko ipar ertzeko bigarren kanpalekuan (7.600 m).

Ez zitzaigun burutik pasa ere egin oxigeno bonbonarik edo altuerako zamaketatirik erabiltzea, igoera errazteko edo altuerako kanpalekuak muntatzeko lanean zama garraiatzen laguntzeko. Besterik gabe, muturreko altueran zertarako gai ginen ikusi nahi genuen eta esperientzia hura bizi.

Espedizio hartan ikusi genuen hainbat taldetako kideek 7.000 metrotik gora erabiltzen zutela oxigeno botilaratua, eta oso gaitasun tekniko gutxi zutela. Errealitate paraleloak ziren; guri haiena ez zitzaigun zipitzik ere interesatzen. Gure birika eta gaitasun hutsez egin nahi genion aurre altuera handiari. Zer zentzu zuen Everestera igotzeak oxigeno gehigarriaren laguntzarekin 7.000 metrotik hasita? Kirol eskaladako bide zail bat saiaterakoan katera iristeko amarru guztiak erabiltzea bezala zen hura niretzat: aseguru guztiei heltzea, estriboak jartzea... Ez nion zentzurik ikusten, baina bakoitzak ikusiko du.

Kangchenjungan bezala, zortzi mila metrotik gora iritsi nintzen Everesteko ipar aurpegian ere, baina, beste behin, haizearen indarrak ez zigun aukera handirik eman goi-goian eginahal sendo bat egiteko. Denboraldi hartan ez zen inor igo oxigenorik gabe.

2002an, Jordi Corominas eta Jordi Tosas kataluniarrek K2ko espediziora gonbidatu ninduten. Asmoa zen hego aurpegiko bide poloniarra estilo alpinoan saiatzea; hau da, hiru laguneko talde txikian, kanpoko laguntzarik gabe eta bide horretan inongo beste talderik gabe. Asmo eta konpromiso handiko proiektua zen artean zortzimilakorik igo ez zuen norbaitentzat, baina erronka zirraragarria irudituz zitzaidan, eta gogo onez onartu nuen.

Bide hori Jerzy Kukuczka eta Tadeusz Piotrowski poloniarrek egin zuten 1986ko udan. Gorriak ikusi zituzten: hiru bibak zortzi mila metroz goitik, jaitsiera epikoa gauez kopetako argi bat hondatuta, hainbat egun ezer jan eta hidratatu gabe, horma izoztuak, kranpoiak ere azkenerako galduta... Hil ala biziko ihes hartan, azkenik, Piotrowski erori eta hil egin zen, eta erorikoan laguna ere arrastan eramateko zorian izan zen.

Jarduera, beraz, ez zen berrietakoa. Hala adierazten zuen bideak errepi-
kapenik ez izateak. Bidearen eta mendiaren goiko aldea, gainera, konpromiso handikoa zen, erronka izugarria. Uda hura oso txarra izan zen Karakorumen, eta K2k ez zuen aukerarik eman; ez behintzat guk nahiko genukeen beste. Abruz-
zos ertzeko ohiko bidetik ere ez zen inor igo. Elur-jausi erraldoiak askatzen ziren behin eta berriro K2ko goiko eremuetatik. Beldurgarria zen: elauso haiek glaziarra gurutzatzen zuten kanpaleku nagusiaren aldamenean eta hauts-lainoa Broad Peak iparrean gora igotzen zen ehunka metro. Elurrolde haietako batzuen ondorioz, arratoiak bezala egin behar izan genuen korri arrakalaren batean babesteko, eta hiru lagun hil ziren denboraldian elur erreka izugarri haiek arrastan eramanda.



Amerikarrek abandonatutako DYE 2 basea.

–Irits dadila azkar goiza lehenbailehen gosaltzeko! –esaten zuen Juanek umorez afari bakoitzaren ondoren.

Kokapen hartatik aurrera, beste espedizio batzuen erreferentzien arabera, baldintzak eta haizeak, normalean, hobeak izan ohi ziren. Eta, zorionez, halaxe izan zen. Pixkanaka, kilometroak gero eta azkarrago egiten hasi ginen, eta gero eta ahal-egin txikiagoa eginez. Sentsazioa batzuetan ikaragarria zen. Elurraren baldintzak ere gero eta hobeak ziren, iparrerantz egin ahala *sastrugi* gutxiago aurkitzen genuen, eta, horri esker, gure lerak ez ziren iraultzen. Egunean ehun kilometro baino gehiago egiten genituen, erraz samar. Marka polita egin genuen egun bakarrean: 230 kilometro.

Baldintzak onak baziren, gure zangoek ahal zuten arte luzatzen genuen jardunaldia. Zenbait egunetan hamaika ordu baino gehiago egin genituen eskien gainean, eta gihar guztiak xehatuta bukatzen genuen. Haizeak bere norabidean

eramaten zituen kometak, eta norabide hori gutxitan etortzen zen bat guk eraman nahi genuenarekin. Hala, norabidea zuzentzeko, eskiak noranzko zuzenari begira jartzen genituen eta kometa albo batean eramaten genuen.

Zeharkaldirako, eskaladako arnesak eraman genituen, oso estuak eta deserosoak kometekin erabiltzeko. Hori dela eta, estera zatiak jarri behar izaten genituen arnesaren eta jantzien artean, gure aldaken alboetan etengabeko presioa leuntzeko. Hala ere, eguna amaitzerako urradurak izaten genituen izterretan, eta larruazala haragi bizitan genuela bukatzen genuen.

Zenbait unetan, 30 km/h-tik gorako abiadura hartzen genuen, eta zabuka joaten ginen eskiekin elur hautsetan. Gure GPSaren arabera, aldi haietako batean 47 km/orduko abiadura hartzera iritsi ginen, horixe izan zen abiadurarik handiena, ikaragarria kontuan hartuta ehun kiloko lera generamala arrastan. Beti iparrerantz jo behar genuen, azkeneko egunetan izan ezik; hondarreko jardunaldi horietan mendebalderantz hartu genuen Thulera iristeko. Groenlandian iparraldean dagoen herria da Thule, eta aireportu txiki bat dago bertan. Astero hegaldi bat ateratzen da handik Nasaq-era itzultzeko.

Latitude haietan deklinazio magnetikoa –hau da, ipar geografikoaren eta magnetikoaren artean dagoen gradu diferentzia– garrantzi handiko datua da; izan ere, balio hori asko aldatzen da distantzia laburrean, eta, gainera, oso esanguratsua da, erraz asko 30°-ra irits baitaiteke. Alderatzeko, gure latitudean ez da gradu batera ere iristen, eta horregatik ez dugu kontuan hartzen.

Abenturaren amaierara iristen gindoazen neurrian, ekainean jada, eguzki biteretako bere gorenera iristen ari zen, eta tenperatura epelagoa zen. Gainera, janari anoa batzuk soberan geratuko zitzaizkigula jabeturik, egun haietan gehixeago jaten hasi ginen. Loria izan zen hura, hainbeste egunetan jarraian afaldu eta gero gure tripa zorriak orroka entzuten ibili ondoren.

Zeharkaldia hasi eta 32 egunera, lurra bistaratu genuen eta muino leun batzuk urrunean. Hautsi zen, azkenean, zerumuga zuri amaigabe hura. Groenlandiako *indlandsisean*, ozeanoaren erdian nabigatzen dabilen marinel baten pare sentitzen zara, haizearen mende eta kometen bidez noranzkoa zuzentzeko zure gaitasuna-



Alberto eta Juan, egindako aurrerapenak baieztatzen.

ren mende. Altueran 700 bat metrora jaitsi ginenean, elurrik gabe geratu ginen, eta pare bat egun behar izan genituen ekipo guztia itsasoraino garraiatzeko.

Ekainaren erdialdea zen, eta Thule parean ginen, desizozten hasitako fiordo batean. Ur kanal ugari zeuden, eta ezinezkoa zen gure kabuz Thulera iristea.

Ramon Larramendik ohartarazi zigun hori gerta zitekeela, eta Thulen bizi ziren lagun batzuen telefonoa eman zigun, beharrean izanez gero haiei laguntza eskatzeko. Fiordoa zenbateraino zegoen desizoztuta, haien lera luze-luzeekin edo bestela txalupekin etorriko zirela gu handik ateratzera, azaldu zigun Larramendik.

Deitu genien eta haien zain geratu ginen, lasai; sei eta zortzi ordu artean behar-ko zituztela esan ziguten.

Bien bitartean, Juani jolas bat bururatu zitzaion: ea hiruotatik nor zen tiratzaile onena. Fusil bat eta hogeita bala genituen, etxetik derrigorrez ekarriak, hartz polarekin topo egiteko arriskua zela eta. Arma etxetik Groenlandiara eramatea odisea bat izan zen. Lizentzia ateratzeko zeregina zotz egin genuen, eta Juani egokitu zitzaion.

Tiroen ondoren, ohartu ginen gerrarako balio zezakeen bakarra Alberto zela, ituan asmatu baitzituen tiro guztiak. Juan eta biok lasto-fardo batzuk ginen. Hogeita balak agortuta, itsaso izoztuaren ondoan eguzkitan etzanda ginela, itsasoan sartu eta atera zebilen piztia bat begiztatu genuen 300 bat metrora. Handi samarra ematen zuen. Sabela uzkuritu zitzaigun hartz bat izan zitekeela pentsatuta; bala guztiak agortu berri genituen ergelarena egiten. Zorionez, foka bat zen; beraz, arnasa hartu eta berriro ere erlaxatu egin ginen.

Ordu batzuk geroago, hiru pertsona heldu ziren, bakoitza bost bat metroko lera handi batekin eta haietatik tira egiteko txakur taldearekin. Gutako bakoitza lera haietako baten jarrita, Thulerantz abiatu ginen. Haiek eskura zeramaten eskopeta, eta eskimaletako bati gure balekin egin berri genuena aipatu nion. Keinu aski adierazgarria egin zuen, eta argi utzi zuen zokor-mazo batzuk ginela.

Lera bikain haiei eta gidarien trebeziari esker, gurutzatu ahal izan genituen ur kanal haiek. Txakurrak, uretara jauzi eginda, beste aldera igarotzen ziren. Gidariak, berriz, kontrapisua egiten zuen leraren muturra edo ipurdia uretan gehiegi hondora ez zedin.

Azkenik iritsi ginen Thulera, poz-pozik zeharkaldia bukatuta, abentura handi hari ekin eta 34 egun geroago. Ikasketa handia izan zen guretzat, hurrengo erronkari berme gehixeagorekin aurre egiteko, Antartika alderik alde gurutzatzea ez baitzen ahuntzaren gauerdiko eztula.

Etxera itzulita eta Groenlandiako bizipenak eta ikasketak barneratuta eta pausatzen utzita, lanean hasi ginen berriro kontinente izoztuko hurrengo espedizioari begira egin beharreko hobekuntzak egiteko. Gure plana Novolazarevskaya basean



Materiala lepoan hartuta fiordora jaitsi ginen, lerak noiz etorriko zain.

hastea zen eta Union glaziarreko basean amaitzea, Herkules badiaren ondoan, tartean Hego Polotik igarota. Aurrez inork egin gabeko ibilbidea zen zeharkaldi polarren mundu honetan. Gure datuen arabera, Hego Polotik Union glaziarreko arteko zeharkaldia, bai, egin zegoen kometekin, baina beste erreferentziarik ez genuen aurkitu. Beraz, Antartika osoa ez zuen inork aurrez zeharkatu kometekin. Hego Polotik Union glaziarreko arteko zati hori, 1.200 kilometroko distantzia, guk egin asmo genuen zeharkaldiren heren bat zen gutxi gorabehera. Erreferentzien arabera, haizeak normalean alde jotzen du tarte horretan.

Mike Horn abenturazalearen teoriaren arabera, ibilbide horren zatirik handiena haizeak bultzatutako kometen bidez egin zitekeen. Antartikako gainazaleko izotz goraguneen edo domoen antolara funtsatzen zuen Hornek bere teoria. Zonalde polarretan hain ohikoak diren haize katabatiko entzutetsuek sortzen dituzte domo horiek. Aire hotz eta trinkoa beheara joaten denez, presio-gradiente horrek eraginda gorago dauden eremuetatik beheago dauden eremuetara jotzen du haizeak, eta horrela sortzen dira domoak.

Groenlandiako esperientzia izan arren, gogotik egin behar izan genuen lan Antartikako espedizioa prestatzeko. Argi genuen lera handiagoak eta zabalagoak



Bamongoko oinetan dago Sonia, bibak egiteko dendaren ondoan.

renganaino jaitsi nintzen berehala. Erabat zorabiatuta eta hotzez dardarka zegoen. Denbora dezente behar izan zuen bere onera etortzeko, baina bere kabuz jaitsi ahal izan zen bibakeko dendara arte. Azkenean, sustoan geratu zen dena, baina halako ataka zailetan, edozein arazo txiki handi bihur daiteke danbateko batean.

Chekigo mendiko bide haren hasieran, arroko harresian finkatua utzi nituen bi sokak, biharamunean itzultzeko asmoarekin. Sonia, ordea, ez zen ondo sentitzen itzultzeko, eta jaitsi egin ginen. Handik egun batzuetara igo ginen berriro Jesus eta biok, hasitako lanak bukatzera. Gailurreko saiakeraren egunean, gau bete-betea atera ginen bibakeko dendatik. Egun batzuk lehenago finkatutako soketan gora igo ginen, haiek berreskuratu eta terreno errazagoan jarraitu genuen eskalatzen, sokak motxilan gordeta. Jesus zihoan aurretik, eta 50 bat metroko irtengune harritsu eta bertikal batera hurbildu zen. Egunsentiaren iria zen,

eta ez zen argi ikusten zer zailtasun izan zezakeen irtenguneak, baina ez zirudien batere erraza. Berak, aurretik baitzihoan, nondik igo adierazten zidan. Nik, ordea, gelditzera bultzatzen nuen, eta hobe genuela zati hartan aseguratuta jarraitzea esaten nion.

–Lasai, Mikel, oso erraza da –esan zidan Jesusék–. Ez dut uste V. gradura iritsiko denik.

Zalantzarik gabe, zailtasunaren kontzeptua erlatiboa da. Jesusentzat onargarria zena niretzat ametigarriaren mugan zegoen. Egia esan, zati horretan sokarik gabe joanda, denbora baliotsua irabazi genuen, eta, horri eskerrak, jaitsierako ia *rappel* guztiak egun-argitan egin ahal izan genituen. Nolanahi ere, eskerrak Jesus aurretik zihoalako eta nondik pasa adierazten zidan; gainerakoan, ez nuen inoiz zati hura sokarik gabe eskalatuko.

Izotzezko sekzioari ekin orduko, sokara lotu ginen. Une horretan, sagar baten tamainako harri kozkor bat erori zen goitik, eta igurzten pasa zitzaigun. Une batez geldirik geratu ginen, zer egin jakin ezinik, baina azkenean jarraitzea erabaki genuen. Zorionez, ez zen harri gehiagorik erori egun osoan.

Ondo joan zen eskalada, eta ez zen aparteko arazorik izan, baina hontzaren uluekin itzuli ginen bibakeko dendara, gau beltzean eta leher eginda. Desnibelean mila metro inguruko bidea da, kalitate handikoa. Guk behintzat gozatu ederra hartu genuen, erabateko bakardadean. Ezin genuen gehiago eskatu.

Buruan proiektu berriak borborka nituela itzuli nintzen etxera, pozik gauzak taldearentzat ondo atera zirelako, eta atsedetik gabeko jardun bizi hartan inolako ezbeharrik gertatu ez zelako.

Bizipenak

Espainiako alpinista gazteen taldearekin eginiko espedizio bikain horren ondoren, garbi nuen noizbait itzuliko nintzela Rolwaling bailarara. Ibar hartan bada besteen gainetik airos nabarmentzen den gailur bat: Drangnag-Ri (6.801 m) da, estetika ikusgarriko mendia, Ama Dablamen antzekoa, baina askoz bakartia goa. Bi igoera baino ez zituen. Bata, 1995ekoa, ekialdeko aurpegitik egin zuen Sir Chris Bonington buru zuen espedizio batek. Talde hartan ziren Ralph Hoibakk eta Bjorn Meyer-Lund norvegiarrak eta Lhakpa Gyalu eta Pema Dorje *sherpak*. Drolombau glaziarretik hurbildu ziren mendira eta ekialdeko ertzetik igo ziren. Bigarren igoera, Bruce Norman eskoziarrak egin zuen bakarka, mendebaldeko aurpegitik, hurbilketa Ripimo glaziarretik egin ondoren.

Halako mendi ikusgarri eta bakartiek, ordea, normalean izaten dute bidesariaren bat. Drangnag-Riren kasuan sarbide zaileko mendia da, Na-Gom herrixkatik